



AZKOITIA

GUKA

ANDREMARIAK
AZKOITIA RRENTZAT



ondo pasau andramaixek!

www.azkoitia.eus
f @ X

 **AZKOITIA**
Udala **7**

Loiola



- 1, 2 eta 3 logelatako etxebizitza argitsuak.

- Kalitate goreneko akaberak eta punta-puntako materialak, 50 urtetik gorako esperientzia duen talde baten bermearekin.

- Azkoitiko bihotzean etxebizitza paregabea lortzeko aukera zure eskura.

ENTREGA 2024 URTE AMAIERA AURRETIK.

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Sustatzailea/Eraikitzailea:



Saltzailea:





Iñigo Etxaniz

Festaren lehertzea; denbora batez herri komunitateak ongi pasatzeko egiten duen paktua



Gogoko dut festen aurreko lasaitasuna. Aurreko egunetan herria lasai egoten da, datorrenerako indarrak hartzen bezala. Abuztuaren 14a iristen denean, 11:00 aldera plazatik buelta bat ematen duenetakoa naiz. Atentzioa deitzen baitit zer bilakaera izaten duen plazak denbora gutxiren barruan. Ezerezetik, festa lehertzer.

Bandako kide izanik eszenatokian egotea egokitzen zait 12:00ak baino zertxobait lehenago. Txupinazioa botatzen dutenean suziaren eztekin pasatzen den segundotxo ondo koordinatzea garrantzitsua da musikariontzat, *Ondo pasa andramaxek* kantaren lehen

doinuek jendearen aldarrean behar bezalako eragina izan dezaten. Festaren lehertzeak hori suposatzen du niretzat; denbora batez herri komunitateak ongi pasatzeko egiten duen paktua. Bazkaltzeko ordua iritsi arte bizitzen den giroa ederra izaten da.

Inoiz entzun ez duenarentzat, arratsaldean *Salbea* entzuteko gonbidapena luzatuko nioke, ateo, elizkoi edo dena delakoa izanik ere, elizak duen akustikarekin *Salbea*-ren lehen akordeek ileak tente jarriko dizkiola ziurtatzen diodalako.

Gauean parranda gosea egoten da. Eta sarritan, jende gehien ibiltzen den gaua izaten da. Bandako kideok, ordea, erlojuari begira ibili izan

ohi gara hurrengo goizean goiz antzean kalejiran atera behar izaten garelako. Batzuk purrustaka, esnatzen ditugulako; eta beste batzuk gustura, goiz ereserkiak herria nola esnatzen duen entzuten. Beti egoten da aurpegia zurbildutako norbait bandan alkatearen etxera bidean, lo gutxi egin duenaren seinale. Agian ohitura hori nahiko zaharkitua gelditu da. Musika banda alkatearen etxera joan eta ondoren udaletxetik elizara ta bueltan korporazioari laguntzearena. Eguerdian kontzertua kontzejupean, eta arratsaldean pixka bat deskantsatu ondoren, berriz kalera buelta, kalean dagoenaren ikusmiran.

Azken urteetan beti dago

zerbait. Magoak, musika edo bestelako ikuskizunak. Iluntzean afari paxara eta film laburrak ikustera. Poza ematen du sortzen duen ikusmirak, ez soilik plazan bertan baizik eta bai lehenago eta bai geroago. Pena ematen dit, ordea, parte hartze maila eskasa izatea. Ea jendea animatzen den. Guk behintzat oso ondo pasatzen dugu sortze prozesuan.

Gauean, nahi duenak, berriro parranda. San Roke eguna ere musikariontzat 'lan' eguna da. Aurrekua, eta gero, kontzertua. Hori da usadioa. Bandako kideok orduan hartzen dugu jai. Horregatik izango da, agian, betidanik parrandarako egun egokiena iruditu izana.

17a oso bestelakoa da. Umeak

ditugunok ere goizean kalera ateratzeko egun ederra. Margolariak kaleetan zehar, ganadua Plazaberrin, erraldoi eta buruhandiak plazatik ateratzen... Hirugarren eguneko maratonia eta azken egunaren arteko lasaigune edo arnagunea. Bestelako gauzak egiteko eguna.

Eta azkenik 18a; bereziki gazteek gozatzen duten eguna. Eguerditik hasi eta eguneko parranda ederra. Gauera luzatzeko aukerarekin noski, azken indarrak xahutzeko. Andramaxek duten ezaugarrietako bat horixe da. Egun bakoitzak bere izaera duela, eta festa beraren barruan festak bizitzeko eta gozatzeko era asko daudela.

Ondo pasau andramaxek!

**ETXEBIZITZA ETA LOKALA EROSI AURREKO AHOLKULARITZA TEKNIKOA
OBRA ETA ERREFORMAK / DEKORAZIOA/ EIT / AZTERKETA ENERGETIKOAK**



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



elena alegre studio

JULIO URKIXO 16 bis, AZKOITIA, TEL: 619 418 487 / info@elenalegrestudio.com



Ainhoa
ILE APAINDEGIA

Guardia kalea • 943-85 08 48
722 227 323

ondo pasau andramaxek!

ZERBITZU INFORMATIKO INTEGRALA
EMPRESA ETA PARTIKULARRENTZAT
Konponketak, mantenimendua, asistentzia teknikoa...
Inzidentzien aurrean erantzun azkarrak!

ALDAKO

ondo pasau andramaxek!

Kale Nagusia, 46 • Azkoitia • 943-08 36 14 • 629 09 92 76
informatika@aldako.es

Aingeru
loradenda

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Guardia Kalea 4, Azkoitia • Tel.: 943-08 37 54 - 688 81 33 46

alberdi

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

ARANBARRI
drogeria

943-85 14 37

Kale Nagusia, 31 • Azkoitia

ondo pasau andramaxek!



Azkoitiko suzko zezena.

AGENDA

Abuztuak 10, larunbata

11:00. Martirietako Igoera, plazatik abiatuta eta Jokin Ormaetxea txirrindulari elkarteak antolatuta. Egunean bertan eman beharko da izena, 10:00etatik 10:45era, plazan.

Abuztuak 14, asteazkena

12:00. Andremarien hasierako txupinazoa, plazan. Musika Bandak *Ondo pasau Andramaixek* joko du, eta gero, *Azkoitia* abestuko dute Parrokiako Abesbatzak eta Iraurgi abesbatzak.

12:30. Azkoitiko, Txantreako eta Buztintxuriko erraldoien eta buruhandien kalejira.

17:00. Haur parkea, Balda plazan.

19:00. Rockalean kale ikuskizuna.

19:50. Udal ordezkariak korporazioan joango dira parrokiara, Txalkor txistulari taldeak lagunduta, *Alkate soinua*-ren doinupean.

20:00. Azkoitia 700 dela eta, Parrokiako Abesbatzak *Te Deum* kanta gregorianoa abestuko du. Ondoren, herritarrek Ignacio Busca Sagastizabalen *Salbea* eta Aita Nemesio Otañoren *Ave Maria* abestuko dituzte parrokiaren zuzen eta bost ahotsarekin, hurrenez hurren.

23:00. Nogen taldearen kontzertua, herriko plazan.

23:00etatik 02:00etara. Drogen kontsumoak eragiten dituen arriskuak saihesteko nahiz murrizteko eta genero erasoaren aurkako babesgune zerbitzuak, parrokiaren aurrean.

Abuztuak 15, osteguna

09:30. Zubiondo Gaiteroak taldearen kalejira.

10:00. Udal Musika Bandaren eta Txalkor txistulari taldearen kalejirak.

10:50. Udal ordezkariak korpo-

razioan joango dira parrokiara, Txalkor txistulari taldeak eta Musika Bandak lagunduta, *Alkate soinua*-ren doinupean.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Erraldoien eta buruhandien kalejira, Zubiondo Gaiteroak taldearekin.

13:00. Udal Musika Bandaren eta Txalkor txistulari taldearen kontzertua, Kontzejupean.

17:00. Pilota partidak, Gurea pilotalekuan. Caixabank Masters txapelketako partidak jokatuko dituzte: batetik, Elordi eta Gabirondo Egiguren Varen eta Tolosaren kontra, eta bestetik, Peña eta Zabaleta, Zabalaren eta Imazen aurka.

17:30. Simulagailuak eta Txiki Chef, plazan.

19:00. Magia poteoa.

19:30. Davila DJa, Balda plazan.

20:00. Azkoitiko gimnastika erritmiko taldearen erakustaldia, parrokiaren aurrean.

20:00. Zubiondo Gaiteroak taldearen kalejira.

23:00. I love'80 taldearen kontzertua, plazan.

Abuztuak 16, ostirala

09:30. Zubiondo Gaiteroak taldearen kalejira.

10:00. Txalkor txistulari taldearen kalejira.

10:50. Udal ordezkariaren korporazioa parrokiara, Txalkor txistulari taldeak lagunduta, *Alkate soinua*-ren doinupean.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Erraldoien eta buruhandien kalejira.

12:15. Aurrekua, plazan.

13:00. Udal Musika Bandaren eta Zubiondo Gaiteroak taldearen kontzertua, Kontzejupean.

17:00. Ur parkea, Balda plazan.

19:00. Benta Zaharreko Mutiko Alaiak taldearen kalejira.

23:00. Suzko erroberak, Vulcano etxearen eskutik.

23:30. Esne Beltza taldearen kontzertua, plazan.

Abuztuak 17, larunbata

09:00etatik 10:00etara. Azkoitiko Kultur Elkartearen XLI. Inazio Iriarte margo lehiaketarako zigilu jartzea, Portaleburu erakusketa aretoan. Lanak 14:00etatik 15:00etara bitartean jasoko dituzte toki berean.

09:30. Herriko trikitalarien eta dultzaineroen kalejira.

09:30. Ganadu erakusketa, Plaza berrin.

11:00. Herriko trikitalari gazteen kalejira.

12:00. Erraldoien eta buruhandien kalejira, Txalkor txistulari taldeak lagunduta.

12:00. Herri kirol jaialdia, plazan.

12:30. Jubilatuen meza, parrokiaren.

14:30. Jubilatuen bazkaria, Elkar-guneko Herriko Plaza aretoan.

Bertan, aurrean 90 urte betetzen dituzten herritarrek omenduko dituzte.

17:30. Kulki baserriko herri kirolen parkea, plazan.

18:00. Bikote Helduen Dantza Suelto Txapelketa, Balda plazan.

19:00. Deidar txaranga, herriko kaleetan.

19:30. XLI. Inazio Iriarte margo lehiaketaren sari banaketa, Portaleburun. Jarraian, Juan Mari Arrizabalagaren liburuaren aurkezpena.

22:00. Film Laburren XII. Lehiaketako lanen emanaldia eta sari banaketa, plazan.

23:10. Hauek taldearen kontzertua, plazan.

Abuztuak 18, igandea

11:00. Atletismo saioa, Balda plazan. Ondoren, XXII. Andremarietako Miliia eta XXI. Kale Atletismo Erakustaldia, Xeye atletismo taldeak antolatuta.

12:00. UKO3 txaranga, herriaren zehar.

14:30. Herri bazkaria, plazan.

16:30. Brincadeira batukadaren *Merograde* ikuskizuna, kaleetan.

17:30. Apar festa, Balda plazan.

18:30. Zezenak, Plazaberrin.

19:30. UKO3, herriaren zehar.

21:30. Gozategi taldearen kontzertua, plazan.

00:00. Suzko zezena, herriko plazan.

00:15. Brincadeira batukadaren *Glowlights* ikuskizuna, kaleetan.

23:00etatik 02:00etara. Drogen kontsumoak eragiten dituen arriskuak saihesteko nahiz murrizteko eta genero erasoaren aurkako babesgune zerbitzuak, parrokiaren aurrean.

Abuztuak 19 eta 20, astelehena eta asteartea

22:00. XIV. Diva-Sat idi dema saria, Gurea pilotalekuko probalekuan.



Gure andramaixek!

Ana Azkoitia - Alkatea

Azkoitia *Azkottixe* da guretzat. Andre Maria jaiak, *andramaixek*. Esaldi eta hitz egiteko modu horren atzean, autentikoa eta jatorra den herri oso bat dugu, pertsonak bezala, herriek ere izaera propioa baitute. Gure kasuan, 700. urteurrena ospatzen ari garela kontuan izanik, auskalo gure izaerak zer bilakaera eman duen gizaldiz gizaldi. Lehen eta orain, ordea, herri batek duen ondasunik handiena herritarrak dira. Herria osatzen duten haur, nerabe, gazte, heldu eta adinekoak. Eurentzat, denontzat, egiten dira festak, herriko festak, andramaixek.

Herri oso baten ospakizuna da. Ezin dugunez mahai bakar baten bueltan denok eseri, kaleak hartuko ditugu datozen egunetan, festa egunei umorea, kolorea, kantua eta irria jarri nahian. Sentimendu horrexegatik, festak batu egiten gaitu. Minak uztartzen gaituen moduan, baita zorionak ere.

Abuztuaren 14an lehertzen da festa gurean. Askorentzat ez da urte sasoirik aproposena, oporraldia tarteko, hondartza bazterren batean harrapatzen dituelako lehen hamabostaldiak. Baina, aizue, ba al da herriko jaiak baino arrazoitxo hoberik herrira bueltatzeko? Jaiez gozatu, eta ondoren atsedean hartzeko paradisu txiki bat bilatzea ere proposamen tentagarria da.

Kontuak kontu, bakoitzak erabaki behar du festak nola bizi nahi dituen, eguneko eguzkipean edo gaueko ilunpean; erromerian dantzatuz edo kontzertuetan abestuz; pilota partidetara joanez edo siesta eginez; erraldoiekin batera paseatuz edo barraketan murgilduz; *Salbea* entzunez... aukera zabala da, eta ongi pasatzeko orduan, egitarauari dagokionez, muga bakarra norberak jartzen duena da.

Badira bestelako mugak. Guztion ardura da festetan gizalegez jokatzea, den-denok goza dezagun. Tolerantziak, errespetuak, berdintasunak, kontsumo arriskuen prebentzioak edota gizatasunak, ondo pasatzeko grinak adinako pisua izan behar dute festetan. Bestela, herriko jaiak amesgaizto bilaka daitezke baten batentzat edo batzuentzat. Ez gaitzala festetan inoren minak elkartu, zorionak baizik.

Balekoak dira lagunartea, bokata, kalea, giro ona, umorea, dantza... eta estutzen banauzue, baita reggaetoia ere, eta noski, euskaraz bada, askoz hobe!

Ondo pasau andramaixek!





«Asko gustatzen zaigu festetan
sortzen den saltsa.
Eta saltsa non, gu han»

Ekhia Larzabal eta Jon Ezeiza Azkoitiko erraldaien arduradunak

Iaz hartu zuten Ekhia Larzabalek (Azkoitia, 1991) eta Jon Ezeizak (Azkoitia, 1998) erraldaien ardura. Modu naturalean gertatu dela adierazi dute, buruhandiek hasi eta hurrengo pausoa erraldoietara salto egitea dela iritzita. Aurtengo festetarako prest daude dagoeneko.



**LARRAMENDI
JAUREGUI**

ondo pasau andramaxek!

Julio Urkixo etorbidea13, AZKOITIA | 943-85 19 61

larramendijauregui@gmail.com | www.larramendijauregui.com

Nola hasi zineten erraldoiak eramaten?

EKHIA LARZABAL: Ia denei gertatzen zaien bezala, buruhandiek hasi ginen. Azkenean, buruhandiak gus-tatuz gero, hurrengo pausoa erraldoietara salto egitea da.

JON EZEIZA: Gustuko dugu saltsa, eta mundu horretan sartuta geunden, baina 18 urte bete artekoa izaten da buruhandien ardura. Inguruan genbiltzan, eta halakoetan, norbait falta izanez gero, gogoa eta ganora dituzula ikusten badute, parte hartzera animatzen zaituzte. Hala, bati erreleboa hartzen diozu egun batean, hurrengoan beste bati... eta, poliki-poliki, kide finko izaten amaitzen duzu.

Iaz hartu zenuen ofizialki erreleboa. Zer moduz moldatu zineten?

E. L.: Dena berria zen... Egia da urte askotan irten garel-a, baina ikusten ez diren lan asko egin behar izaten dira, eta gu iaz arte, ez ginen horren jakitun. Ordura arte, hitzordua jartzen zutenean azaltzen ginen, erraldoiak hartzen genituen, herrian itzulia egiten genuen eta kito, amaituta. Inolako kezkarik gabe.

J. E.: Erraldoiak non egoten diren jakin, horiek muntatu, jantzi, arropak garbiak dau-dela ziurtatu... gauza asko dira, eta ez baduzu horren ardurarik, ez duzu imajinatzen hori dena dagoela egiteko.

E. L.: Erraldioen kontuez ez ezik, buruhandien ere arduratu behar dugu. Gauza asko dira, eta lehen ordurako bertar-ratzen baginen, orain ordu erdi lehenago egon behar izaten dugu. Beste modu batera antolatu behar izan dugu, baina ondo moldatzen gara.

Urte askotan erraldoiak eramaten ibilitako Kinttelak bere ezagutza transmitituko zizuen, ezta?

J. E.: Bai, gauza pila bat azal-du zizkigun. Dena ulertu genuen, baina urtebete igaro ondoren, erdiak ahaztu zitzaizkigun... Zaila da, baina ondo moldatu gara. Egiari zor, bera hor izan dugu behar izan dugun guztietan. Udaleko brigadari ere esan zion guri laguntzeko. Bai Kinttela eta bai brigada, laguntzeko prest ditugu beti.



«Grazia egiten du egoerak, ume txikien erreakzioek batik bat»

«Dena ulertu genuen, baina urtebete igaro ondoren, erdiak ahaztu zitzaizkigun»

«Askotan esaten diet kuadrillakoei gazteek erreleboa hartzen hasi behar dugula»

Azkoitiko festetan kalera ateratzeaz gain, beste herrietara eramaten al dituzue erraldoiak?

E. L.: Azpeitiko Santio festen barruan antolatzen duten Umeen Eguneko erraldioen desfilean parte hartzen dugu. Lehengoak ere joaten ziren Azpeitiko txapelketara, eta orain guk hartu dugu horren erreleboa ere.

Eta zer moduz daramazue erraldoiak dantzan jartzea?

J. E.: Ez dugu dantzarik egiten... Erraldoiak Azpeitiko Umeen Egunera eramaten ditugu eta han pasiera egiten dugu. Azkenean, han dantzan aritzen diren taldeak herriz herri ibiltzen dira, eta erraldioen ohitura handia dute he-



Jon Ezeiza eta Ekhia Larzabal, Azkoitiko plazan.

rri horietan. Guk, ordea, urtean behin ateratzen ditugu.

E. L.: Txantreakoak [Nafarroa] edota Hondarribikoak [Gipuzkoa], adibidez, Azkoitiko festetan izango dira, eta beste herrietan ere ibiltzen dira, festaz festa. Horiek txapelketetan parte hartzen dute. Baina lau erraldoi ekartzen badituzte, hogeit hamar pertsona dituzte lau erraldoi horiek mugitzeko.

J. E.: Gu, berriz, sei erraldoi eta sei lagun gara. Ez dugu inoiz pentsatu dantzan hastea.

Erraldoiaren barruan zaude-tela, kanpokoak ikusteko aukera duzue. Nola bizi dituzue umeen erreakzioak?

E. L.: Grazia egiten du egoerak, ume txikien erreakzioek batik bat. Urruti bazaude, ondo egoten dira, baina zirikatzera joaten bazara, ezinegona sartzen zaie. Batzuk lehertu egiten dira eta negarrez hasten dira. Beste batzuk, berriz, gerturatu egiten dira, eta orduan galderak egiteko aprobetxatzen

dugu; erraldoia barrutik ikusi nahi al duten galdetzen diegu, eta normalean ausartzen dira.

J. E.: Une politak sortzen dira, eta ederra izaten da hori. Gainera, gaur egungo ume askok oso gustuko dituzte erraldoiak, eta erraldoi txikien ikaragarriko bildumak dituzte.

E. L.: Ume batzuk ezagunak ditugu dagoeneko, eta gerturatu egiten gara haiengana hitz egiteko. Iaz haur bat agurtu nuen eskua erraldoiaren gonatik aterata. Korrika joan zen amonarengana, eta haren gonapean sartuta, modu berean agurtu ninduen. Polita izan zen.

Erraldoiekin atera beharra izateak eragina izaten al du festez goatzeko orduan?

E. L.: Abuztuaren 14a ederra izaten da; kalera irten, eta erraldoi-ekin desfilean gabiltzan bitartean poteoa egiten dugu, fresko egoten gara. Egunez egun, ordea, poteoko garagardo kopurua gutxitzen joaten da.

Gu, gainera, aldrebesak gara; 14an egiten dugu ibilbide moztzena, eta 17an herri osoa igarotzen dugu. Pasada ederra hartzen dugu...

Festez goatzeko aukera baduzue behintzat. Zer da gehien gustatzen zaizuen?

E. L.: Festetan sortzen den saltsa da ederra. Saltsa non, gu han.

J. E.: Herriak behar duen edo-zertan parte hartzen dugu: paella prestatu, erraldoiak atera, suzko zezenak... Askotan esaten diet kuadrillakoei gazteek erreleboa hartzen hasi behar dugula, bestela ekintzak galdu egingo direla. Eta pena izango litzateke ohitura politak galtzea.

E. L.: Gaupasa eginda ere, hitza eman baduzu, bete egiten duzu. Gainera, badugu pizgarria; gure artean lehia moduko bat dugu: hitzordura azkena iristen denak lehen potea eta txibien errazioa ordaindu behar ditu. Beraz, azkar mugitzen gara.



EROSKI

kalitate onena
prezio onenean

zurekin ondo pasau andramaxek!

Andremariak: tradizioak, ohiturak eta berrikuntzak

Andre Maria jaietako egitaraua ekintzaz beterik dagoen arren, badira bi hitzordu berezi, tradizioarekin lotura estua dutenak: Musika Banda alkatearen bila joango da hilaren 15ean, eta udalbatzak dantza egingo du plazan hurrengo egunean. Bi ekintzen jatorriaz gehiago jakin nahi izan du Azkoitia Gukak.



Musika Banda Ana Azkoitia alkatearen bila joan zen, iaz.

Festetako egitarauan, beste arlo gehienetan gertatzen den bezala, ekitaldiak gehitzen edo kentzen joan dira urteetan zehar. Horrela joaten dira herriko festak izaera hartzen.

Hala, poliki-poliki, hainbat ekitaldi ohitura edo tradizio bilakatzen dira. Hori gertatu da Azkoitian Andre Maria eguneko -abuztuak 15- eta San Roke eguneko -abuztuak 16- bi ekintzarekin; Musika Banda alkatearen etxera joatea da bat,

eta bestea, udal korporazioak aureskua dantzatzea plazan. Baina nondik datoz? Zergatik mantendu dira? Alkatearen bila haren etxera joatearen ohitura ez da oso zaharra: data zehatzik jakin ezin den arren, demokrazia garaiko lehenbiziko alkatearekin eman zioten ohiturari hasiera, baita jarraipena ere: Roman Suduperekin, hain zuzen ere. «1979. urteaz ari gara. Sudupe zen alkatea, eta Joxe Mari Larrañaga Xague zinegotzia. Haren ideia izan litekeela dirudi. Garaiko pen-

tsamoldeak oinarri hartuta, eta alkatearen emazteak asko sufritzen zuela eta, emakumearen papera eskertzeko hasi ziren egiten etxera bisita», azaldu du Juan Bautista Mendizabal Azkoitiko kronista ofizialak eta Ondare zinegotziak. Ordudanik, jarraipena izan du alkatearen bila joatearen ekintzak; Andre Maria egunean, dianaren ondoren, Musika Banda alkatearen etxera joan ohi da, lore sorta batekin. Alkateak, berriz, mokadua ematen die bandako kideei. «Ekitaldiak detaile desberdinak izan

Pello Bastarrika alkatea Azpeitian bizi zenez, hari ez zioten egin bisitarik

Dantzan hasi zen lehendabiziko alkatea Ramon Unanue izan zen

ditu, baina urtez urte mantentzen joan den zerbait izan da», gaineratu du Mendizabalek. Ohitura horrek, ordea, izan ditu hainbat salbuespen: adibidez, Pello Bastarrika alkatea Azpeitian bizi zenez, ez zioten egin bisitarik. Beste salbuespenak emakume alkateekin egin dira: «Demokrazia garaiko Nere Zubizarreta, Urrategi Alberdi eta gaur egungo Ana Azkoitia alkateen kasuetan, bikotekideari eman izan zaie lore sorta. Garaiak aldatu egin dira, ez dago duela 45 urteko pentsamolderik gizartean, eta



Urolan zehar ibiltzen bazara, zure aukerarik onena gara!



Erosotasuna, segurtasuna eta eraginkortasuna zure irteeretan, ibilaldietan, ospakizunetan...

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Ugarte Industrialdea, 54 · AZKOITIA · 943-85 11 59
info@laguipuzcoana.eus · www.laguipuzcoana.eus
f La Guipuzcoana · t @LaGuipuzcoana



zerbait da», dio Mendizabalek. Alarde hura, ordea, poliki-poliki galtzen joan zen, eta mantendu zen eguneko ekintza bakarra aurrekoa izan zen, prozesioarekin batera. «Izan ere, Azkoitian bazen aspaldian San Sebastian ermita bat, San Rokerekin partekatua, Mendikote bezala ezaguna den gunean. Prozesioa Mendikotetik barrena egiten zuten, eta Ipar kalekoek –gaur egun Aizkibel kalea dena– egiten zuten dantza. Aizkibel kale inguruan zegoenez Umore Ona elkarteak, bertako kideek hartu zuten egunaren ardurara», azaldu du kronistak. Umore Ona elkarteko adinekoak zeregin hori uzten joan ziren, eta gazteek, haien lekukoa hartu zuten arren, dantza egin nahi ez zutelara eta, Sahatsa taldeari eskatu zioten. «Hala ere, *errefreskoa*-ren ardurarekin jarraitu zuten. *Errefresko* hori beti izan da txakolina edo ardo txuria, eta Bitter Cinzano». Horrekin batera egiten du udalbatzak dantza plazan. Tradizio edo ohitura hori 1989an berreskuratu zuen udalak, On Anastasio Albisu herriko seme izendatu zuenean. «Ekitaldi hura borobiltzeko, Ikerfolkeko Juan Antonio Urbeltzekin egon ginen, eta hark esandako moduan egin genuen emanaldia. Orduetik, berdin jarraitzen du. Izan ere, horren aurretik udalbatza udaletxeko balkoian egoten zen ikusten», adierazi du Mendizabalek. Hala, dantzan hasi zen lehendabiziko alkatea Ramon Unanue izan zen. Ondoren, Asier Aranbarri alkatea izan zen zinetziak ere dantzan jarri zituena. «Ekitaldi ederra izaten da, baina, esan beharra dago emanaldiari distira berezia Sahatsa dantza taldeak ematen diola...», amaitu du Mendizabalek.

ondo dago garai berrietara egokitzea», adierazi du Mendizabalek.

Agurra eta 'errefreskoa'

Bestalde, San Roke eguneko tradizio garrantzitsuenetakoak udalbatzak plazan egiten duen dantza eta *errefreskoa* eskaintzearena dira. Azken horren historia bereziki aspaldikoa da: XVII. mendekoa. Garai hartan, Azkoitiko festak abuztuaren 15ean bakarrik ospatzen ziren, baina garaiko Aita Santuak herri guztiek bi jai egun behar zizutela erabaki zuen: bi patroik,



emakumezkoa eta gizonezkoa. «Azkoitian zozketa egin zen hainbat aukeraren artean, eta San Roke atera zen. Gauza da San Roke abuztuaren 16an ospatzen dela, eta garai hartarako, egunak bazuen dagoeneko festa ukitu bat: abuztuaren 14ko eta 15eko ekitaldi erlijioso ondoen, ekintza zibilak egiten ziren; alardea, adibidez. Alardea egiten zen herriari arnabak erakusteko, eta horren ondoren, garaian esaten zen bezala, *errefreskoa* eskaintzen zitzaizkien gudariei. *Errefreskoa* gaur egun mantentzen den



TXG
TXOMIN GORRI

Marka eta mota guztietako autoentzako kalitatezko zerbitzua eskaintzen dugu

ondo pasau andramaxek!

- Merkatuarekin batera etengabeko formakuntza eta berrikuntzak
- Bezeroen arretan gertuko tratua
- Zerbitzuan azkartasuna eta kalitatea
- Prezioen gardentasuna
- Mota guztietako autoak konpontzeko prestutasuna (klasikoak, kamionetak, autokarabanak, 4x4...)
- Aire girotua
- Kaxa automatikoaren mantenua





Juin Txiki Industrialdea, 16A · AZKOITIA · 655 52 12 57 · txgautoak@gmail.com





«Azkoitian ohartu naiz gauza txikiek handiek baino gehiago balio dutela»

Montserrat Gonzalez Brancolini

Udalak omenduko duen herritarretako bat

Katalunian jaioa, Parisera joan zen bizitzera gaztetan Montserrat Gonzalez Brancolini. Han ezagutu zuen gaur egun senarra duen Antxon Elorza bilbotarra, Azkoitiko familia zuena. 2001. urteaz geroztik bizi da Azkoitian, eta aurten, 90 urte bete dituen, udalaren aitortza jasoko du abuztuaren 17ko bazkarian, beste 33 herritarrekin batera.

Katalunian jaioa, Frantzian bizitakoa... Nola amaitu duzu Azkoitian?

Senarrarengatik. Bera, izatez, Bilbokoa da, baina gero Frantziara joan zen, eta han ezagutu genuen elkar. Bilbotarra izanagatik, familia du Azkoitian, eta urtero-urtero etortzen ginen bisitan. Gero, adinean aurrera egin genuen heinean, Azkoitian bizitzeko gogoia piztu zitzaion senarrari. Hasiera batean ez nintzen Azkoitira etortzearen oso aldekoa, pertsona oso helduak bakarrik ikusten nituen kalean, eta... Orain barre egiten dugu, pasiera egitera irteten garenean helduak gu garelako!

Eta noiz eman zenuten pau-soa?

Parisen etxe txiki batean bizitakin; izan ere, han bi aukera daude: diru asko duzu, edo hiririk kanpora joan behar zara. 2000. urtean hemengo higiezin agentzia batera joan ginen, eta pisu bat bazutela jakinarazi ziguten. Joateko eta ikusteko esan ziguten. Hala egin genuen, eta etxean sartzean, bertako argia eta San Martingo ikuspegiak ikustean, bertan geldituko ginela esan nion senarrari.

Asko kostatu al zitzaizun Azkoitiko bizimodura ohitzea? Nolakoak dira azkoitiarrak?

Ez asko. Oso moldagarria naiz, ogiaren orearen gisan. Eta oso gustura bizi naiz Azkoitian. Bertako jendea oso itxia da, baina horrek ez ninduen

gehiegi harritu, Katalunian ere horrelakoak direlako, eta Frantzian ere bai. Horregatik ez zitzaidan axola jendea itxia izatea. Hala ere, gaur egun esan dezaket egin ditudala lagunak, benetako lagunak. Senarrak, gainera, familia ezagutu du, eta uste zuena baino gehiago dira. Oso erraza izan da dena.

“

«Bertako jendea oso itxia da, baina horrek ez ninduen gehiegi harritu»



Eta euskaraz, zer moduz moldatzen zara? Kanpotik datozenentzat ikasteko zaila den hizkuntza dela diote.

Nik katalana hitz egiten dut, gaztelania ere bai, frantsesa, italiara pixka bat... baina euskararekin ezin izan dut. Katalana eta frantsesa oso antzekoak dira, baina euskara beste mundu bat da. Ez dut ulertzea lortu izenondoen eta aditzen kokapena, adibidez. Behin gertatu zitzaidan gauza batekin ohartu nintzen ezin izango nuela euskara ikasi: katean nindoala, emakume batek senarra non zegoen galdetu zidan; nik erantzun nion «etxean» zela [euskara baituan], eta bere erantzuna «a, etxin» izan zen [azkoitiarrez].

Zur eta lur geratu nintzen. Azkoitian horrela esaten zela esan zidan. Egia da, agian, gehiago saiatu izan banintz lortuko nuela euskara ikastea, baina oso azkarra edo gaztea izan behar duzu horretarako, eta ni zaharregi harrapatu ninduen.

Andremarietako festetan udalak omenduko dituenetako bat izango zara. Gogoz al zaude?

Jakinekua zen, urtero egiten baitute 90 urtekoen omenaldia, baina, hala ere, gustura hartu dut albistea. Zain-zain nago. Bazkaltzera joango naiz, jendea ikusi, saltsan egon... Ziur oso ondo pasatuko dugula denok.

90 urte eta arrosa baino freskoago zaude. Zein da sekretua, sekreturik bada?

Bada sekretu bat: irekita egotea, harkorra izatea. Gauza politekin eta sutsuekin harkorra naiz, eta hori aparteko arma dela esango nuke. Aurrez esan bezala, oso moldagarria naiz. Parisen, adibidez, estimulu artistiko ugari nituen: antzerkia, musika, erakusketak... Neure margolanen erakusketak ere egin nituen. Orain, ordea, gauzak bereizten ikasi dut, balio dutenen eta balio ez dutenen artean. Hemen, Azkoitian, ohartu naiz gauza txikiek handiek baino gehiago balio dutela. Goizean jaiki, leihoa zabaldu eta San Martin ikustea, zeruaren koloreak preziatzea... hori guztia ikaragarria da. Horrek guztiak bizirik mantentzen nau.

ERLOJUTEGIA *Gonzalo* BITXITEGIA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Kale Nagusia, 11 · 20720 Azkoitia · 943-85 24 93

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

KALE NAGUSIA, 55 · 943-85 13 19

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

943-85 25 59
Ibai-Ondo Kalea, 24
20720 Azkoitia

ondo pasau andramaxek!

graphic's

www.graphicsazkoitia.com

Ondo Pasau Andramaxek!!



Miele

ONDO PASAU
ANDRAMAXEK!

Sanatzaile ofiziala
MILAR LARRAMENDI
Ebuztearen elektronikak

Julio Urkijo Hiribidea, 16
20720 Azkoitia - Gipuzkoa
943 851 697

Cooking & Chef
SUMAKILAS GUREA

* Informazio gehiago: www.miele.com



Aurtengo festen txupinazoa: Azkoitiak azkoitiarrentzat

Azkoitiko hiri gutunak 700 urte bete ditu aurtengoa, eta data bereziaren harira, hainbat ekitaldi egin dituzte urtean zehar herrian. Hala ere, ekintzarik nabarmenenetakoa abuztuaren 14an izango da. Izan ere, udalak Azkoitiko herriari eskainiko dio aurtengo festen txupinazoa. Hain zuzen ere, udaletxeko balkoian izango dira aurtengo festetan parte hartuko duten eragile eta taldeetako kideak.

 **ALBERDI**
INMOBILIARIA

943 16 98 78
info@alberdi-inmobiliaria.com

www.alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3
20720 AZKOITIA

Ondo pasau Andramaxek!!

943 85 25 14
info@alberdi-asesoria.com

www.alberdi-asesoria.com
Trenbidearen Zumardia, 3
20720 AZKOITIA

 **ALBERDI**
ASESORIA



MAPFRE
AZKOITIA

JOAQUIN eta
IGOR ISUSQUIZA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



Julio Urkijo, 20 - 20720 AZKOITIA
943-85 14 61 • isusqui@mapfre.com

orbela JATETXEA

KOXKA TABERNA




Aita Madinabeitia Plaza
699 29 23 62

Kale Nagusia, 92
943-85 11 96

ondo pasau andramaxek!



nho

ainhoa ebaniz estudioa
barneen diseinatzailea

Julio urkijo, 6 • AZKOITIA
943-85 09 73 • 669 92 24 58
nho@nhoestudio.com
www.nhoestudio.com

Ondo pasau andramaxek!



herrixen
entzaintza eta komunikazioa

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



ORMOLA
moulding solutions

ondo pasau andramaxek!

www.ormola.com
ormola@ormola.com
943-85 13 00
Basarte area aldea 5 zbk, Azpeitia



Azkoitiko udaletxea, urtarrilaren 4an, zazpigarren mendeurrena ospatu zen egunean.

Alfonso XI. a erregeak hiri gutuna eman zion Azkoitiko hiribilduari 1324ko urtarrilaren 4an, eta beraz, aurten 700 urte bete dira gertaera hartatik. 1324ko urtarrileko egun hark zazpi mendeko historiaren hasiera ezarri zuen, eta horrek markatu du, neurri handi batean, Azkoitian aurtengo urte erdiaren agenda kulturala, data berezi hori oroitzeko ekitaldi ugari gauzatu baitituzte.

Programaren hasiera ofiziala sinbolismoz beteta egon zen. Hain justu, herriko eliza guztietako kanpaiek batera jo zuten urtarrilaren 4ko 20:00etan. Gainera, San Martin ermita argiztatu zuten, hiribilduaren sorreran jokatu

zuen paper garrantzitsua gogoratzeko; izan ere, Azkoitia haren inguruan kokatu zen sorrerako urteetan. Hasiera sinboliko horrez gain, harrezkero, erakusketak eta organo kontzertuak ere izan dira herrian. Era berean, askotariko kultur ekitaldiak antolatu dituzte urte osoarako: kontzertuak, hitzaldiak... Indar handiko beste bi proiektu ere badituzte esku artean: bi liburu argitaratuko dituzte urtemugaren aitzakian. Batean, Azkoitiko Erdi Aroko eta XVI. mendeko histo-

Festei hasiera emango dien suziria Azkoitiko urteurren bereziari eskainia izango da

ria jasoko dituzte, eta bestean, berriz, 40 urtez Azkoitiko andremarietan egin den margolan lehiaketara aurkeztutako lanak bildu dituzte. Gainera, XIII. mendetik eta XVI.era arteko Azkoitiko dokumentazioa transkribatzen ari dira, baita arkeologiari lotutako gaiak lantzen ere.

Ekitaldi garrantzitsuena

Urteurreneko ekitaldiak goreneko mailara, ordea, abuztuaren 14an iritsiko dira, andremarietako txupinazoarekin. Azkoitiko Udalak hala erabakita, aurtengo festei hasiera emango dien suziria urteurren bereziari eskainia izango da. «Azkoitia 700 guztiona da. Andre Maria jaiak ere guztionak dira. Horregatik, aurten txupinazoa herriak botatzea nahi dugu. Baina herritar guz-



Dantzariak Plazaberrin, 1951 urtean. KUTXA FOTOTEKA (PACO MARIN)

tiok ezin garez udaltxeko balkoian elkartu, aurten go festetako egitaraua hartu dugu jarraibide gisa, eta antolatutako ekintzetan, era batera edo bestera, modu aktiboan parte hartzen duten Azkoitiko taldeetako ordezkariak eta herritarrak gonbidatuko ditugu balkoira», azaldu du Azkoitiko Udalak.

Festak posible izan daitezzen, herritarren parte hartzea ezinbestekoa da, eta denentzat ez bada ere, askorentzat parte hartze hori lan bilakatu ohi da. «Lana edo aisia tarteko, herritar askok parte hartzen dute festetako egitarauan, eta festa leherraraziko duen txupinazoko momentuan, talde eta pertsona horiek ordezkatuta egotea garrantzitsua da, denon artean egiten ditugulako festak, eta euren ekarpenik gabe,

ezingo liratekeelako jaiak antolatu», gaineratu du udalak. Modu horretan, abuztuaren 14ko eguerdian, Azkoitiko udaltxean izango dira aurten go festetan parte hartuko duten eragile eta taldeetako kideak: txistulariak, erraldoiak eta buruhandiak eramanen dituztenak, boluntarioak, kirolariak, dantzariak eta abesbatzakoak, besteak beste.

Estreinaldi bat

Azkoitiko herriaren urteurren bereziaren omenezko txupinazoarekin batera, eta urteroko ohiturari jarraituz, Musika Bandak Ondo Pasau Andramaxek joko du, eta jarraian, Azkoitia abestuko dute Parrokiako Abesbatzak eta Iraurgi abesbatzak. Aurten, ordea, bada berrikuntza bat: Migel Mari Azpiazuk konposatutako

San Martin obra estreinatuko dute festei hasiera emateko unean.

Gainera, inklusioa bultzatzeko bidean, duchenne gaitza duten pertsonentzako gune bat egokituko du udalak plazan txupinazoaren unean. Horri lotuta, era berean, musikariek gabeko ordua izango da festetan barraketan; egunero, abuztuaren 14tik 18ra, 18:00etatik 19:00etara bitartean.

Duchenne gaitza duten pertsonentzako gune bat egokituko du udalak plazan txupinazoaren unean

SANTIKUA
BELARDENDA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

KALE NAGUSIA, 28
943-85 13 40

taberna **zur**

ondo pasau andramaxek!

KALE NAGUSIA, 68 - AZKOITIA • 943-85 12 75

unanue@unanue.eus
www.unanue.eus

aholkulariak
UNANUE
ZERGAH | LABORALA | AUDITORETZA | ENPRESA ETA AUTONOMOAK

ondo pasau andramaxek!

Kale Nagusia 58. AZKOITIA 20720 | Erribera kalea 6. ZUMAIA 20750
943-85 07 69 | 943-86 09 60

Ita kun

ondo pasau andramaxek!

943-08 30 32 • Kale Nagusia 81 - AZKOITIA

MONTAJES

LAIZOLA S.L.
AROTZERIA METALIKOA

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Ugarte Industrialdea, 23, Azkoitia • Tel.: 943-85 20 12 - 943-85 33 75



Ondo pasau Andramaixek!

Ostalaritzarako hornigaiak

samic
www.samic.es



«Familia asko etortzen dira material bila edo eskerrak ematera, eta zoragarria da»

Veronica Huerto SexuBizi prebentzio programaren arduraduna

Sexualitate eta harreman osasuntsuak bultzatzeko eta erasoen aurka egiteko puntu morea jarriko du udalak jaietan. Abuztuaren 14an eta 18an eskainiko du zerbitzua BiziBitxi psikologia eta sexologia osasun zentroak.

Zer zerbitzu eskainiko dituzue?

Informazioa, aholkularitza eta genero eraso matxisten aurkako babes eskaintzen dituen gune mugikorra da gurea. Harreman eta sexualitate osasuntsuak bultzatzea du helburu, prebentzioa osotasunean landuz eta jai inguruneetara hurbilduz. Harremanen zein sexualitatearen inguruko ahoko zein paperezko informazioa ematen dugu, sexu segurua izateko materiala banatzen dugu, sexualitatearen eta harremanen inguruko aholkularitza zerbitzua ere badugu, eta azkenik, Babes Gunea dugu, genero indarkeriari aurre egiteko bitartekoekin: babes fisikoa, laguntza emozionala, informazioa eta aholkua eskaintzen ditugu, besteak beste.

Zer nolako garrantzia du horrelako gune bat izateak herriko festetan?

Oso garrantzitsua da. Harreman erotikoetan, adibidez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako

15 eta 29 urte bitarteko gazteen %18,4k arriskuko sexu jokabideak izan dituztela diote. Hiesari dagokionez, sexu jokabideak birusa transmititzeko bide nagusia bilakatu dira, eta, gaur egun, hamar kasutik bederatzitan dira birusaren transmisio bide nagusia. Sexu transmisiozko infekzio guztien kasuak ere ugaritu egin dira. Heren batek bakarrik adierazi dute kondoia erabiltzen dutela bagina edota uzki bidezko koi-toan, eta soilik %4k erabili dute aho-genital bidezko harremanetan.

Bestalde, azterketek agerian utzi dutenez, genero indarkeriaren biktimak diren emakumeak gero eta gazteagoak dira. Euskadiko salaketen %42 32 urtetik beherako emakumeek jartzen dituzte. Argi dago nerabeen eta gazteen artean estereotipo matxistak areagotzen ari direla, eta aldi berean, kontrolean eta jelskortasunean oinarritutako maitasun ereduak jarrerak eta joko-



«Ahalik eta intimitate eta goxotasun handiena eskaintzen dizkiogu eraso egin dioten pertsonari»

«Zalantza gehienak osasun sexualaren inguruan izaten dira»

bideak ari direla normaltzen. Horregatik, berdintasunezko eta begirunezko harremanak lortzeko, abusuzko harremanak saihesteko eta harreman osasuntsuak bultzatu ahal izateko, premiazkoa dela uste dugu ekintza bereziak eta berri-zaileak sustatzea. Jai ere-

muetan, alkoholak eta bes-telako substantziek euforia sentipena areagotzen dute, eta ondorioz, indarkeria kasuak ugaritzen dira: irain sexistak, ukituak nahiz eraso larriagoak. Giro normal batean izan ohi ez ditugun jarrera batzuk badirudi jaietan libreki onartzen ditugula. Eta are kezagarriagoa da askotan drogen kontsumoa emakumeen eta LGTBI pertsonen aurkako indarkeria justifikatzeko aitzakia moduan erabiltzea.

Nolakoa izaten da herritarren erantzuna? Zer profiletako jendea joan ohi da zuen gunera?

Orokorrean, gazteak etortzen dira. Baina familia asko ere hurbiltzen dira material bila edo eskerrak ematera, eta hori zoragarria da.

Zeintzuk izaten dira galdera edo zalantza nagusiak?

Zalantza gehienak osasun sexualaren inguruan izaten dira. Gainera, kanpaina bat ere badugu horri lotuta: *Alua tapatu*

eta gozatu, infekzioak emakumeen artean izugarri igo dire-lako (heterosexualen, lesbien eta bisexualen artean).

Indarkeria kasu baten aurrean, zer pauso jarraitzen dituzue?

Ahalik eta intimitate eta goxotasun handiena eskaintzen dizkiogu eraso egin dioten pertsonari, karpako argiak itzaliz eta furgoneta barrura sartuz. Lasaitzen joaten den heinean, dauden aukerak azaltzen dizkiogu: ospitalera joan nahi al duen, salaketarik jarri nahi duen... galdetzen diogu. Garrantzitsua da erasotuak jakitea eraso sexual baten ostean ez dagoela salaketa jartzera behartuta, eta ospitalera, Gizarte Zerbitzuetara edota Udaltzaingora jo dezakeela, salaketa jartzera behartua egon gabe. Ospitalera joatea oso garrantzitsua dela ere jakin behar du, erasoaren ondorioak arintzeaz gain, laginak hartu ahal izango dizkiotelako, aurrerago salaketa jarri nahiko balu.

KOXKI
eraikuntzak - construcciones

Auzmendi bidea, 58 - AZKOITIA

koxki@koxkieraikuntzak.com

640 39 46 36



ERA GUZTIETAKO ERAIKUNTZAK ETA ERABERRITZEAK

Ondo pasau Andramaiyek!



*ONDO PASAU
ANDRAMAXEK!!*

- AEROTERMIA
- AIRE GIROTUA
- AMIANTO LANAK
- UR ETA GAS INSTALAZIOAK

Trenbidearen zumardia 15 BEHEA · 20720 Azkoitia 943 85 23 85 · lopetegi.iturgintza@gmail.com






Oina oina oina oina oina oina oina oina. SINADURA / AGENTZIA

Herri bazkaria, datuetan

- **Noiz?** Abuztuaren 18an, festen azken egunean.
- **Noiztik?** 1986. urte ingurutik antolatzen du Azkoitiko Udalak. Lehenago ere egiten zen, baina bakoitzak bere etxetik eramaten zuen bazkaria.
- **Non?** Azkoitiko plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Berdura Plazan eta plazako arkupeetan.
- **Zenbat pertsonarentzat?** 1.400 txartel banatzen ditu udalak. Euria eginez gero, 1.400 lagun horiek lekua ziurtatuta dute.
- **Zenbat arroz?** 130 kilo arroz kozinatzen dituzte herri bazkarirako. Horrez gain, 220 kilo txorizo eta haragi (oilaskoa, saiheskia eta txerri saiheskia) erabiltzen dituzte.
- **Zenbat boluntario behar dira?** Urtero-urtero hamar eta hamabi lagun biltzen dira bazkaria prestatzen laguntzeko.
- **Zenbat denbora?** Bi ordu eta erdi behar izaten dituzte paella egiteko.



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



Aingeru Kalea 5 - 20720 Azkoitia
943-54 08 86-669 41 40 25
deko@beatrizpozo.com



Festetan ere, sasoi betean

Azkoitiarrek sasoi betean amaitzen dituzte Andre Maria festak. Aurtengo abuztuaren 18an, XXII. eta XXI. edizioak beteko dituzte Xeye atletismo taldeak antolatzen dituen Miliak eta Atletismo Erakustaldiak. Atletismo modalitate bereziak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek berriro ere, eta aldaketa txiki bat ere izango du aurtengo Miliak: ibilbide berria estreinatuko dute.



Kirolari bat pisua jaurtitzen.

Egunkari
eraikuntzak



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



Atl etismo a festen egitarauaren baitan aurkitzen bada gaur egun, Jose Antonio Zulaikaren «errua» dela esan daiteke. «Hura izan zen andremarietan atletismoak bere lekua izan behar zuela esan zuena. Hala, lehendabiziko urte hartan txapelketa moduko bat antolatu genuen; txapeldunen arteko milia. Gipuzkoako eta Nafarroako talde onenek parte hartu zuten, herriko taldeekin batera. Urte hari jarraipena emanez, bigarren goan atletismo erakustaldia sartzea erabaki zen, gorako jauzia eta pisu jaurtiketa modalitateekin», agertu du Xeye atletismo taldeko lehendakari den Joseba Agirrek.

Urtez urte indarra hartzen joan da atletismo saioa. Miliak, adibidez, XXII. edizioa beteko du aurten, eta erakustaldiak, XXI. edizioa. Erakustaldiak iaz bete zituen 20 urte, eta urteurren berezia ospatzeko Gari Garmendia pisu jaurtitzalea ekarri zuen Xeye taldeak. Garmendia harri-jasotzaile gisa

hasi da, eta 100 kiloko harria hogei alditan jaso zuen iaz Azkoitian, erakustaldi moduan.

Hala ere, denboarekin formatuan aldaketak izan dira. Erakustaldiak, adibidez, aldaketa gutxi izan ditu, urte batean luzera jauzia egin zuten, baina gorako jauzia eta pisu jaurtiketa modalitateekin mantendu da. Miliak, aldiz, aldaketa ugari izan ditu, ibilbideari dagokionez. Aurten, adibidez, ibilbide berria estreinatuko du: «Bi ibilbide desberdin izan ditu Miliak urte hauetan, baina aurten, hirugarrena estreinatuko dugu. Izan ere, trafikoa moztu beharra izaten dela eta, aldaketa egiteko eskaera izan dugu. Hala, aurtengo ibilbidea eliza atarian hasiko da eta Santa Klara parean bukatu, 400 metroko luzera izango du. Bi joan-etorri egin beharko dituzte korrikalariak, 1.600 metro eginez. Probatzea erabaki dugu; ikusleentzat hobe izango dela uste dugu, korrikalariak gehiagotan ikuste-

ko aukera izango dutelako. Ea ondo joaten den!».

Denei zabalik

Parte hartzaileei dagokienez, gehienak gipuzkoarrak izaten dira. «Baditugu pertsonalki ezagutzen ditugun entrenatzaileak, eta haiek entrenatzen dituzten edota ezagutzen dituzten kirolariak ere etortzen dira: Madrildik eta Valentziatik, adibidez. Parte hartzea, ordea, edozein modalitatetan, Milian ere, irekia da. «Nahi duten denek parte har dezakete, baita herrikoek ere, eta saiatzen gara horiek zirikatzen. Jai giroan baiezkoa ematen dute batzuek, baina eguna iristean ez dira ausartzen», dio Agirrek.

Eskualdean atletismorako instalakuntza egokirik ez izateak eragina baduela uste du Agirrek: «Gertuen ditugun

pistak edo entrenatzeko instalazioak Zumarragan eta Elgoibarren ditugu. Horrek eragiten du eskualdean modalitate berezi horietako kirolaririk ez izatea; izan ere, oso proba teknikoak dira, eta gutxieneko baldintza batzuk betetzen dituzten azpiegiturarik ez badago, zaila da kirol horiek egiten hastea».

Atletismoa festetako azken egunerako uztea, agian, ez da herritarrak parte hartzera ani-

matzeko modurik onena: «Ez dugu maila handiko probarik nahi, guk giroa nahi dugu, baina ez da erraza festa egun guztien ondoren horrelako zerbaitetan hastea. Pisu jaurtiketan, adibidez, zazpi kiloko bola izaten da; seiko esne kaxa baino pisutsuagoa. Hori jaurtitzea ez da erraza, are gehiago metro askotara. Teknika ere behar da. Umeak bai animatzen dira, 10-12 urte bitartekoak, eta batik bat, korrika egitera», adierazi du.

Hala ere, Xeye lehendakariaren hitzetan, atletismoa erakusteko balio izaten du egunak: «Korrikalari ugari daude Azkoitian eta Azpeitian, baina beste modalitateak zaila da kalean ikustea. Pisu jaurtiketako kirolariek, adibidez, ez dute ohiko gorpuzkera izaten: handiagoak eta indartsuagoak izaten dira. Hori guztia ikustea aberasgarria da».

Aurtengo ibilbidea eliza atarian hasiko da eta Santa Klara arte luzatuko da

Atletismoa erakusteko balio izaten duela egunak adierazi du Xeyek



ONDO PASAU ANDRAMAXEK!

Jandonianiz Kalea 7-Azkoitia

943-85 12 35

641 288 401

@geretafarmazia



GRIETA
Street Style
Kale Nagusia, 65
943 85 29 27
info@grieta.es
grieta.es

ondo pasau andramaixek!



ORAIN gure baserriko barazki ekologikoak.

- Prestatutako barazki-poltsak
- Igande goizetan ere irekita: 8:00-13:00

makibar

ondo pasau andramaxek!

Altzibar Etorbidea, 17 • 943-53 37 52



GM

ondo pasau andramaxek!

943-85 19 66 farmaciamentiola@gmail.com
Kale Nagusia, 13 • Azkoitia

IZPI OPTIKA
Optometria + Audio zentroa

IKUSI, IKASI ETA ONDO ENTZUN

ONDO PASAU ANDRAMAXEK!



aterpe

ONLINE IKUSI, ESKAERA EGIN... ETA KALEAN EROSI!

ESKATU INFORMAZIOA: aterpe@gukazerbitzuak.eus



40 urteko margoak hitzetan jasota

Inazio Iriarte margo lehiaketak bete dituen 40 urteak jaso ditu liburu batean Juan Mari Arrizabalaga artistak. Aurtengo festetako lehiaketaren egunean, abuztuaren 17an, aurkeztuko dute 'Azkoitia Ignacio de Iriarte margo lehiaketa. 40 urte' izeneko lana.



Juan Mari Arrizabalaga artista eta idazlea, eta liburuaren azala.

Artista, idazlea, eta Inazio Iriarte lehiaketako epaimahaikidea. Osagarri horiek guztiak batuz gero, normalena zen Juan Mari Arrizabalagak lehiaketaren historia idatziz biltzeko ardura hartzea.

Pasio pertsonal gisa abiatu zuen proiektua Arrizabalagak: «Duela 40 urte ezinezkoa zen argazkiak koloretan ateratzea, baina posible izan zenean, afizioz hasi nintzen lehiaketako koadroei argazkiak ateratzen. Gainera, 25. urteurrenean erakusketa antolatu zuen Azkoitiko Udalak, urte horietako margolan sarituekin, eta egoe-ra hori aprobetxatu nuen argazkiak ateratzeko. Harrezkero, urtero atera ditut. XL. urteurrena gerturatzen ari zela, zer egin nezakeen pentsatzen hasi nintzen, eta Juan Bautista Mendizabalekin hitz egin ondoren, liburuaren ideia otu zitzaigun. Ordudanik, lana, lana eta lana egin dut liburua egia bilaka zedin», azaldu du. Azkoitia 'Ignacio de Iriarte'

margo lehiaketa. 40 urte liburuak 294 orrialde ditu, eta hainbat ataletan antolatuta dago: margo lehiaketaren inguruko azalpenen idatzi batekin hasten da liburua, jarraian 40 urteetako lan sari-tuak daude bilduta, ondoren Juan Bautista Mendizabalen artikulu bat dator, beste atal batean saririk jaso ez baina kalitate handia duten margolanak daude, Sevillako Unibertsitateko katedratiko batek idatzitako Inazio Iriarteren bibliografia ere jaso da, eta azkenik, kalean egindako argazki anekdotikoak aurki daitezke.

«Lana erruz egin dut, baina lan dotorea egin izanaren poza sentitzen dut»

«Azkoitiak benetako interesa agertzen du, eta hori da arrakasta»

Informazioz eta historiaz beteriko liburua da, beraz, eta abuztuaren 17an, aurtengo lehiaketaren sari banaketaren ondoren aurkeztuko dute. «Oso gustura gelditu naiz emaitzarekin. Lana erruz egin dut, baina lan dotorea egin izanaren poza sentitzen dut», adierazi du Arrizabalagak.

Lehiaketaren arrakasta

Inazio Iriarte lehiaketak 41. edizioa izango du aurtengoa, eta Azkoitiko festen barruan, leku garrantzitsua izaten jarraitzen du; urtez urte, Euskal Herriko margolari garrantzitsuenek parte hartzen dute bertan. «Herri txiki batean horrenbeste urtez mantendu izana ikaragarria da; gainera, parte hartze izugarria du. Baina, batik bat, herriaren erantzuna nabarmenduko nuke; margolariek nola lan eginen duten ikusi, sari banaketara eta erakusketara joan... Azkoitiak benetako interesa agertzen du, eta hori da arrakasta», amaitu du artista azkoitiarrak.

GE
grupo eibar
inmobiliario

WWW.IZARJAI.COM

Ondo Pasau Andramaixek!

SEIGABREN BEBARRUA LAISTER SALMENTAN EDUKIKO DUGU. APUNTATU ZAITEZ INFORMAZIOA JASOTZEKO



Igerilekua, lorategia eta txokoa duen urbanizazio pribatua
2 edo 3 logelako etxebizitzak eta solariuma duten atikoak

Terraza zabalak etxebizitza guztietan, bista irekiak
Berogailua, zoru erradiatzale bidez · Guztiz hornitutako sukaldeak

PREZIOAK 245.000 €TIK AURRERA (BEZ gabe)



Kurutzia

Azkoitia

AZKOITIKO GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: Julio Urquijo Etorbidea 30 · 618 614 541

comercial@grupoeibar.com · WWW.GRUPOEIBAR.COM · 943 31 66 11

Bergara
Gure **lorentxoko**
bizgune berria

Eibar
estaziño
ERAKINA

Deba
ib3
itsas begi
ETXAKO ERORLAGA

Elgoibar
etxe gain
IK11
Bizgunea parkian



Herrietatik sortutako
komunikazio taldea gara,
gure komunitateaz
jarduten dugu,
gure begiekin, gure erara,
gure hizkuntzatik:

GUKA
gara